**2026ko maiatzaren 9a**

# Albiste eta informazio interesgarriak

## EHPMREN MANIFESTAZIO JENDETSUA ETA AKTIBOA OSTEGUNEAN GASTEIZEN

Beste behin ere, ostegunean EHPMk Gasteizen deitutako manifestazioa oparoa, aktiboa eta koloretsua izan zen. Goizeko 11:00etan abiatu zen Gasteizko Bilbo plazatik eta hiriko hainbat kaletatik zeharkatu ondoren, Legebiltzarraren aurretik igaro eta Katedral Berriaren aurrean amaitu zen.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 2.000 pentsiodun inguru bildu ziren, horietako askok 15 autobus, hamarnaka auto edo garraio publikoak erabili zituzten Arabako hiriburura iristeko. Bertaratutako pentsiodun gehienek peto gorria jantzia zuten, "Gutxieneko pentsioa=Gutxieneko soldata" leloaz. Eta haien artean herri eta eskualdeetako 30 pankarta inguru kokatu zituzten, zeinen atzean herri horietako pentsiodunak biltzen baitziren. Manifestazioak iraun zuen bitartean ez ziren megafonia-aparatuak falta izan, beren musika eta kontsignekin martxa animatuz eta oinezkoei EHPMren eskaerak helaraziz.

Partaide pentsiodunen arteko giroan harrotasuna, adorea eta borrokan jarraitzeko gogoa izan ziren, manifestazioaren amaierako agirian azken hau nabarmenduz…

***Gaur inoiz baino arrazoi gehiagoz, Gutxieneko Pentsioa = Gutxieneko Soldata eskatzen dugu***

*Gaur, maiatzak 7, pentsioen erosteko ahalmena berreskuratzeko gaude hemen, baita Gutxieneko Pentsioa osatzeko ere Lanbide arteko Gutxieneko Soldataraino (LGS).*

*2025eko irailaren 25ean, EAJk, PSEk eta VOXek betoa jarri zioten EAEko Legebiltzarrean gure HELi, 145.142 sinadurek babestua. HEL horretan pentsioak osatzea eskatzen dugu LGSraino. Beto horrek beharrean dauden pentsiodunen diru-sarrerak hobetzea eta gutxieneko diru-sarreretan zegoen genero-arrakala desagerraraztea eragotzi zuen.*

*Eraso inperialistek sortutako krisi ekonomikoarekin, pobrezia langile eta pentsiodun jendearen artean handitzen ari da, kontrolik gabeko prezioen igoera espekulatiboagatik. Gure pentsioek aurten %2,7 balio handiagoa izan arren, erosteko ahalmena gero eta txikiagoa da; gero eta pentsiodun gehiagok ezin dugu hilabete amaierara iritsi eta oinarrizko eskubideei uko egin behar diegu, hala nola, osasuna, elikadura osasuntsua, etxebizitza erosoa, mendekotasun zerbitzuak eta sendagaiak. Bien bitartean, finantza-sektorea, energia-enpresak eta*




*elikaduraren monopolioak gerrekin negozioa egiten ari dira mozkinen errekorrak sortuak.*

*2025eko irailean, EAJk eta PSEk beren gain hartu zuten pentsiodunen pobreziaren areagotzea, orduan HELi uko egiteko aitzakiak baino ez zituzten, orain berriz bat ere ez. Garai horretan EAJk eta PSEk uko egin zioten gure eskaerak eztabaidatzeari eta orain Legebiltzarreko hiru batzordetan agertzeko eskaera atzeratuz jarraitzen dute.*

*Irailean ez ziguten entzun nahi, gaur hementxe entzungo digute eta astelehenean -hilak 11- Lehendakaritzan. Honako hau eskatzen dugu: Parlamentu honen lege bidez Gutxieneko Pentsioa LGSraino osatuko dela bermatzea eta galdutako erosteko ahalmena berreskuratzeko beharrezko erabakiak hartzea. Nahi izanez gero, egin dezakete eta berehala gainera.*




## Tasioren txokoa

# ALEMANIAN GASTU MILITARRA HANDITU DUTE ETA PENTSIOENA ETA GASTU SOZIALA MURRIZTU

Alemaniako demokrazia kristaua (CDU) eta sozialdemokraziaren (SPD) koalizio Gobernuak, hazkunde ekonomikoaren murrizketaren aurrean erreakzionatzeko (industriaren lehiakortasuna ez galtzeagatik), gastu militarra nabarmen handituko duela iragarri du, eta aldi berean gizarte-prestazioak bortizki murriztuko.

Osasunaren arloan, koordainketa farmazeutikoak eta ospitalizazioa, langileen bikoteetako kideen estaldura mugatzea -lan egiten duten bikoteetan kotizatzen ez dutenek langilearen diru-sarreren %2,5 ordaindu beharko dute gutxienez-, minbizi mota batzuen prebentziozko kontrolak kentzea eta ezinbesteko ebakuntzak baino ez egitea. Haur eta nerabeentzako laguntza murriztuko da, 12–18 urte bitartekoena, gurasoetako batek mantenu-gastuak ordaintzen ez baditu. Arlo sanitarioan bakarrik, gastu sozialaren murrizketa 38.000 milioi eurokoa izango litzateke 2030ean.




Lan-arloan, iraupen luzeko langabeentzako prestazioak murriztea aurreikusten dute. Munduko pentsio-sistemarik zaharrenak (1899an sortua), nahiz eta azken hamarkadetako murrizketa-neurriak eduki, oraindik estaldura oso zabala du pentsiodunentzat, hala ere Gobernuak pentsioak "oinarrizko estaldura" batera murriztu nahi ditu, 2027rako gastua 4 mila milioi euro gutxituz.

Horrela, kapitalizazio-pentsio pribatuen bidez bakarrik mantendu ahal izango dira pentsioen aurreko zenbatekoak, aurreko "erreformengatik" jadanik murriztutakoak. Gastu sozialaren murrizketa bideratuta dago gastu militarrean %28ko igoera finantzatzera, 105.000 milioi euro arte, eta horrela armada alemaniarra Europako garrantzitsuena bihurtzera. Alemaniak Europako politiketan daukan eragina ikusita, arrisku larria dago iragarritako plan antisozialak Europako estatuetara zabaltzea, Europako Batzordearen eta finantza-prentsaren lankidetzarekin.

Duela egun batzuk *diario.es*-ek argitaratutako informazioen arabera, Espainiako Estatuan gastu militarra 2025ean 40.200 milioi eurora iritsi zen, beraz 2024arekin alderatuta %50eko hazkundea izan zuen. Espainia munduan gastu militar handiena duten estatuetan 15. postuan kokatzen da. Alemanian bezala ez da gastu sozialen murrizketa hain gogorrak iragarri, baina horrek ez du eragozten alerta egotea eta gastu militar horiek salatzea eta aurka egitea, are gehiago aitzakia izan daitezen gastu sozialak murrizteko.

## EUSKAL HERRIA ERALDATZEN, ZAINTZA-SISTEMA PUBLIKO ETA KOMUNITARIOAREN BIDEAN

Hori da bihar, -maiatzak 10, igandea- Bilboko Unamuno institutuan egingo diren Jardunaldietarako aukeratu den leloa. "Euskal Herria eraldatuz…", zeren Zaintzak erdigunean jar daitezen, gizarte osoa eraldatu behar dugu. Alde batetik, gizonen inplikazioa, baina, bestetik, gizartearen antolaketa bera. Ezin dugu Zaintza erdigunean jarri lan mundua berrantolatzen ez badugu lanaldia murriztuz, denok zaintzeko denbora izan dezagun.

2023ko azaroaren 30eko Greba Feminista Orokorraren ondoren, Eusko Jaurlaritza zein Nafarroako gobernuari eskatu zitzaien eta entzungor egin zuten. Ez da aurrerapausorik ikusi, are gehiago zaintza lanak negozio bihurtu dituzte emakumeen kontura, batez ere, emakumeen migratuak eta arrazializatuak.

Biharko Jardunaldiak zabalik daude emakumeen eta gizonen parte-hartzeari begira, zainketek emakumeen betebehar izateari utzi behar diote, eta gizarte-erantzukizun izatera igaro behar dute, alde batetik erakundeak zaintzarako pertsonen eskubide kolektiboa bermatzera behartuta dauden; bestetik, baita gizarte osoarena ere, guztiok gure bizitzan zehar, are gehiago zahartzen garen heinean, zainduak izan behar dugu eta guztiok zaintza-lan horietan parte hartu beharko dugu neurri batean, ez behartuta, baizik eta gure hurbileko pertsonekiko konpromisoagatik, dela familiakoekiko, dela lagunekiko, dela auzokideekiko...

Bihar, gaur egungo Zaintza-Sistema eraldatzen inplikatuta dauden pertsona, erakunde sindikal eta sozial guztiek eztabaidatzeko aukera izango dute. Horrela, lortutako lorpenei buruz hitz egingo da, Zainketen Sistema Publiko eta Komunitario horretarantz aurrera egiteko erronka berriak eta eman beharreko urratsak Zaintza unibertsalak eta kalitatezkoak behar duenari bermatzeko. Denok gaude gonbidatuak.




## REPSOL ETA IBERDROLAREN ESKANDALUZKO ETEKINAK

Iranen eta Libanoren aurka AEBk eta Israelek egindako eraso militarraren krisi betean, Ormuzeko itsasartea ixtearen ondorioz petrolio-ontzi handiak igarotzea eragotziz, Josu Jon Imazek zuzendutako Repsolek 929 milioi euroko irabazi garbia izan du urtarril eta martxoaren bitartean, hau da ia hirukoiztu egin du iazko aldi bereko emaitza: 366 milioi euro.

Repsolen mozkinen hazkunde berezi horrek, besteak beste, honako faktore hauek eraginda izan da: Repsolek findutako petrolioa, adibidez Muskizko plantan -Petronorrek operatua-, martxoan lehengo prezioekin prozesamendu-instalazioetara iritsi zen, Irango gerra hasieran, petrolioa Brent upela 70 dolar baino gutxiagoan zegoenean, hala ere, findegietatik atera da upelaren prezioa 100 dolarretik gora.

Aurrekoa adibide tipikoa da, gerrak eta beraiek sortutako krisialdiak nola aprobetxatzen dituzten finantza talde eta multinazional askok, espekulatzeko eta onura handiak lortzeko, prezio oso altuak ezarriz, baita neurrigabekoak ere, era guztietako produktu eta merkantziei, gero herritarren gehiengoak ordaindu behar.




murrizteko, horietariko 230 "borondatezkoak" Estatu espainiarrean.

Pentsioen eta soldaten igoeren gainetik KPI igotzen denean, erosketa saskiaren oinarrizko produktuen kostua are gehiago hazten direnean, etxebizitzen alokairuaren garestitzea -eta erosketarena aipatu gabe- ezinezkoa denean... sozialki iraingarriak dira Repsolen eta Iberdrolaren mozkin eskandalagarriak, baita IBEX 35 osatzen duten enpresa guztiena ere.

BBVAk ere duela egun batzuk aurkeztu zituen lehen hiruhilekoaren emaitzak: 2.889 milioi euro irabazi zituen, iazko aldi beraren aldean %11ko hazkundearekin. Eta iragarri egin du gainera 125 milioi bideratuko dituela bere plantilla 750 pertsonaz Ez dugu soilik irmo salatu egin behar onura eskandalagarri horiek, baizik eta kontrolatu eta mugak jarri prezioen igoerari; era berean, onuren gaineko zerga gehiago ordain dezaten eskatu behar da. gizarte-premietara bideratzeko.

## GELDIUNEA NAFARROAN EZGAITASUNA-BALORAZIOAN, URTEBETETIK GORAKO ITXARONALDIAZ

Joan den astean, Gizarte Eskubideen batzordean Carmen Maeztu sailburuak azaldu zuen ezgaitasuna baloratzeko eskabideak izapidetzeko denborak, itxaron beharrekoak, "*ez direla positiboak*" eta aplikatutako neurriek *"ez dituztela itxaron-zerrendak murriztu"*. Ildo horretan adierazi zuen 2019an itxaronaldia bost hilabetekoa zen bitartean, 2026ko urtarrilean hamahiru hilabete eta erdi, duela zazpi urte baino ia hiru aldiz gehiago.

Egoera hori eragin duten faktoreei dagokienez, sailburuak adierazi zuen 2023ko maiatzean, Errege Dekretu berriak aldaketak ezarri zituela menpekotasuna aitortzean eta atzerapen orokorra prozesuetan. Horrez gain azken urteetan eskabide-gorakada, 2019an 6.059tik oraingo 8.500era. Eta langileen aldaketak balorazio-taldeetan, mediku eta psikologoen jubilazioagatik, "ezin plantilla egonkortu" zeren eta "oposizioetara atera diren medikuntzako hiru plazetatik bat bakarrik bete egingo da, eta lanaldi erdian".

Testuinguru horretan, Nafarroako Pentsiodunen Mugimenduak uste du "berriro ere herritarren eskubideen galera baten aurrean gaudela, oso muturreko egoeran. Eta irtenbideak eskatzen ditugu: ahalik eta lasterren epeak berriro hiru hilabetera izatea legeak ezartzen duen bezala, mendekotasun-maila eta prestazioaren emakida aitortzeko, eta gradua eskatzen den egunetik aurrera ondorioak izan ditzan mendekotasunak, hilabete bakoitzeko




atzerapenak ondorio jasanezinak izaten ari dira balorazioaren zain dauden pertsonentzat eta haien familientzat".

## AZKENEAN! NAFARROAKO EGOITZEN HITZARMENA IZANGO DA.

Albistegi honetan duela hiru aste argitaratu genuen interesgarritzat jotzen genuela Nafarroako adinekoen egoitzen Hitzarmen kolektiboaren negoziazioen aurrerapena, iturri sindikalen arabera. Orain esan dezakegu, sektorearekin zerikusia duten 5.000 pertsonak izango dutela beren Nafarroako lehen Sektore Hitzarmena, urteetan zehar mobilizazioak, grebak eta aldarrikapenak egin ondoren.

LABek, CCOOk eta UGTk (ELAk bere kideei galdetuko die) patronalarekin joan den astean sinatu zuten, 70 egoitzatan 4.500 langile hartzen dituen aurreakordioa, eta gainera, beste zentro batzuetara ere zabalduko dena, hala nola eguneko zentroetara, zentro psikiatrikoetara eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuetara. Horrela, sindikatu horiek uste dute lan-baldintza horiek onura nabarmena eragingo diote 5.000 langile baino gehiagori, gehienak emakumeak.

Nafarroako Pentsiodunen Mugimenduak sektore horretako langileak zoriondu ditu, Nafarroan lan-baldintza duinak arautzeko eta hobetzeko ezinbestekoa den zerbait lortzeagatik. Gure elkarretaratzeetan ere aldarrikatua genuela gaineratu dute: "Hitzarmen duina adinekoen egoitzetan" eta "Zaintzen duena zaindu egin behar da", Zaintza giza beharra da, bizitzari eta gizarteari eusteko.




## EHPENTSIODUNEN ALDARRIKAPEN-JAIA BARAKALDON

Joan den astean aurreratu genuenez, maiatzaren 21ean jai bat egingo da Barakaldon, horko mugimendu pentsiodunak antolatua, Bizkaiko Ezkerraldea eta Meatzaldea eskualdeetako langile, meatzarien eta pentsiodunen historia biziaz jardungo da.



Era berean, jakinarazten dugu Ibarrakaldun (Santa Teresa auzopean) 150 pertsonentzako bazkari-kantaldiaz amaituko dela, 15€ko prezioan. Eta festarako izena emateko, WhatsApp bidez egin behar da, Jose Ignacioren zenbakira. 688 683 106, maiatzaren 13ra arte.

Parte hartzea ez da bakarrik Meatzaldea eta Ezkerraldeko pentsiodunentzat, baizik eta Bizkaiko edo Euskal Herriko gainerakoentzat ere. Baina bazkariari dagokionez antolaketa ondo bermatzeko, berriro gogoratzen dizuegu izena eman behar dela datorren asteazkena baino lehen, hilak 13. Zalantzarik gabe, aldarrikapen-eguna eta jai-giroko jardunaldi interesgarria izango da, topaketa atsegina eta animosoa Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduko lagunen artean. Ekimena agerian utziko du lehen "langile aktibo" gisa, eta orain, berriz, pentsiodun, gure bizitza pertsonal eta komunitario osoari eragiten dioten eskubide sozialen alde jarraitzen dugula borrokan.

9 mayo de 2026

# Noticias e informaciones de interés

## ACTIVA Y NUTRIDA MANIFESTACIÓN DEL MPEH EL JUEVES EN GASTEIZ

Una vez más, la manifestación convocada por el MPEH el jueves en Gasteiz fue nutrida, activa y colorida. Arrancó a las 11 de la mañana de la plaza Bilbao y tras recorrer diversas calles de la ciudad y pasar por delante del Parlamento, culminó ante la Catedral Nueva.

Reunió a cerca de 2.000 pensionistas de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, buena parte de ellos trasladados a la capital alavesa en 15 autobuses, decenas de coches, o por medios de transporte público. El grueso de los y las pensionistas asistentes portaban los petos rejos grabados con el eslogan *"Pensión Mínima=Salario Mínimo".* Y entre ellos y ellas se situaron unas 30 pancartas de pueblos y comarcas, detrás de las cuales se agrupaban las compañeras/os de esas localidades. A lo largo de la manifestación no faltaron los aparatos de megafonía con su música y sus consignas animando la marcha y haciendo llegar a las personas viandantes las demandas del MPEH.



El ambiente entre las personas pensionistas asistentes fue de orgullo, ánimo y disposición a seguir en la pelea, resaltándose al término de la manifestación.

**Hoy con más razones que nunca, exigimos pensión mínima igual a salario mínimo**

Hoy día 7 de mayo estamos aquí para exigir la recuperación del poder adquisitivo de las pensiones y complementar la Pensión Mínima hasta el Salario Mínimo Interprofesional.

El 25 de septiembre de 2025, PNV, PSE y VOX vetaron en el parlamento de la CAV el debate de nuestra ILP apoyada por 145.142 firmas. En esa ILP demandamos complementar las pensiones mínimas hasta el SMI. Este veto impidió mejorar los ingresos de las personas pensionistas que lo necesitaban y acabar con la brecha de género en ingresos mínimos.

Con la crisis económica generada por las agresiones imperialistas la pobreza entre la gente pensionista y trabajadora aumenta sin control por el incremento especulativo de los precios. Aunque nuestras pensiones han aumentado un 2,7% la capacidad de compra disminuye y cada vez hay más personas pensionistas que no podemos llegar a final de mes y tenemos que renunciar a derechos básicos como la salud, la alimentación sana, vivienda confortable, servicios de atención a la dependencia y medicamentos. Mientras tanto, el sector financiero, las empresas energéticas y los monopolios de la alimentación hacen negocio con las guerras y baten récords de beneficios.

En septiembre de 2025, PNV y PSE se hicieron responsables del aumento de la pobreza de las personas pensionistas, entonces solo tenían excusas para rechazar la ILP ahora ya no tienen ninguna. En PNV y PSE rechazaron debatir nuestras demandas y ahora continúan retrasando nuestra petición de comparecencia en tres Comisiones del Parlamento.

Con ese veto no nos quisieron escuchar, pero hoy nos van a oír aquí y el lunes 11 en Lehendakaritza. Exigimos garantizar por ley de este Parlamento complementar la pensión mínima hasta el SMI; exigimos adoptar las decisiones precisas para recuperar el poder adquisitivo perdido. Si quieren lo pueden hacer y lo pueden hacer de inmediato.




## El rincón de Tasio

# AUMENTA EL GASTO MILITAR Y SE REDUCE EL GASTO SOCIAL Y DE LAS PENSIONES EN ALEMANIA

El gobierno de coalición alemán entre los partidos de la democracia cristiana (CDU) y de la socialdemocracia (SPD), a fin de reaccionar a la reducción del crecimiento económico por la pérdida de competitividad de la industria alemana, ha anunciado un aumento importante del gasto militar al mismo tiempo que un brutal recorte de las prestaciones sociales.

En materia sanitaria se quiere aprobar un aumento importante de los copagos farmacéuticos y por hospitalización, restringir la cobertura a los miembros de las parejas que trabajen –para mantener la cobertura sanitaria quienes no coticen deberán pagar al menos el 2,5% de los ingresos del cónyuge asegurado–, suprimir los controles preventivos de algunos tipos de cánceres y reducir las intervenciones quirúrgicas a las imprescindibles. Se recortará la ayuda a los niños/as y adolescentes de entre 12 y 18 años de quienes uno de sus padres no paga los gastos de manutención. Solo en el sector sanitario la reducción del gasto social sería de 38.000 millones euros en 2030.




En materia laboral prevén recortar las prestaciones a las personas desempleadas de larga duración. Para el sistema de pensiones, que es el más antiguo del mundo (fue creado en 1899), y que a pesar de las medidas de recorte de las últimas décadas todavía mantiene una muy amplia cobertura para hombres y mujeres, el gobierno pretende reducir las pensiones a una "cobertura básica", que disminuya el gasto en 4 mil millones de euros para el 2027.

De esta forma solo a través de las pensiones privadas de capitalización se podrá mantener las anteriores cuantías de las pensiones, ya recortadas por "reformas" anteriores. La reducción del gasto social está destinada a financiar un aumento del 28% en el gasto militar hasta 105.000 millones de euros y convertir así al ejército alemán en el más importante de Europa. A la vista del papel de Alemania en las políticas europeas, existe el grave riesgo de que los planes antisociales anunciados se pretendan extender, con la colaboración de la Comisión Europea y la prensa financiera, a todos los Estados europeos.

Según informaciones publicadas hace algunos días por el *Diario.es* en el Estado español el gasto militar alcanzó en 2025 la cifra de 40.200 millones de euros, con un crecimiento del 50 % en relación al 2024, situándose en el puesto 15 de los estados con mayor gasto militar en el mundo. Esto no ha venido acompañado del anuncio público de recortes tan duros de gastos sociales como en Alemania, pero ello no impide que estemos alertas y que denunciemos y nos opongamos a esos aumentos de gastos militares, y más aún a que sirvan de excusa para reducir gastos sociales.

## TRANSFORMANDO EUSKAL HERRIA, EN EL CAMINO HACIA UN SISTEMA PÚBLICO Y COMUNITARIO DE CUIDADOS

Ese es el lema elegido para las Jornadas que se celebrarán mañana, domingo, 10 de mayo, en el Instituto Unamuno de Bilbao. Transformando Euskal Herria, porque, para desarrollar un sistema que ponga los cuidados en el centro, tenemos que transformar toda la sociedad. Por un lado, la implicación de los hombres, pero, por otro, la propia organización de la sociedad. No podemos situar los cuidados en el centro si no reorganizamos el mundo laboral, reduciendo la jornada para que todos y todas tengamos tiempo para cuidar.




Tras la Huelga Feminista General del 30 de noviembre de 2023, se interpeló a los Gobiernos vasco y navarro e hicieron oídos sordos. No se han visto avances, es más, han seguido privatizando los trabajos de cuidado, convirtiendo el cuidado en negocio a costa de las mujeres, y, sobre todo, de las mujeres migradas y racializadas.

Las Jornadas de mañana están abiertas a la participación de mujeres y hombres porque los cuidados tienen que dejar de ser una obligación de las mujeres, y pasar a ser responsabilidad social, por una parte, de las instituciones, obligadas a garantizar el derecho colectivo de las personas al cuidado, pero, por otra, también del conjunto de la sociedad, porque todas y todos, a lo largo de nuestra vida, y más a medida que nos hacemos mayores, tenemos necesidad de ser cuidadas y todas y todos tendremos que participar, en alguna medida, en esas tareas de cuidado, no por obligación, sino por compromiso con nuestras personas más allegadas, sean personas familiares, amigas, vecinas,…

Mañana, todas las personas, organizaciones sindicales y sociales, implicadas en transformar el actual sistema de cuidados, tendrán la oportunidad de debatir en torno a los logros conseguidos, los nuevos retos y los pasos a dar para avanzar hacia ese Sistema Público y Comunitario de Cuidados que garantice unos cuidados universales y de calidad a quien lo necesite. Todas y todos estamos invitados.

## BENEFICIOS ESCANDALOSOS DE REPSOL E IBERDROLA

En plena crisis de la agresión militar de EEUU e Israel contra Irán y Líbano, que ha traído consigo el cierre del estrecho de Ormuz, impidiendo el paso de los grandes buques petroleros, el grupo Repsol, dirigido por Josu Jon Imaz, ha obtenido 929 millones de beneficio neto entre enero y marzo, lo que supone casi triplicar el resultado del mismo periodo del año pasado, cuando ganó 366 millones de euros.

Este incremento tan extraordinario de beneficios de Repsol ha venido dado, entre otros factores, porque el petróleo refinado por Repsol en plantas como la de Muzkiz –operada por Petronor– durante el mes de marzo llegó a las instalaciones de procesamiento con los precios previos al inicio de la guerra de Irán, cuando el petróleo estaba a menos de 70 dólares el barril de Brent. Sin embargo, ha salido de las refinerías con el precio del barril a más de 100 dólares.

Un ejemplo típico de muchos grupos financieros y multinacionales que aprovechan las guerras y las

crisis generadas por ellos mismos, para especular y obtener grandes beneficios, estableciendo precios muy altos, incluso desorbitados, a todo tipo de productos y mercancías, que luego son costeados por la mayoría de la ciudadanía.

En cuanto al BBVA, que presentó hace unos días sus resultados del primer trimestre, ganó 2.889 millones de euros, con un crecimiento del 11% respecto al mismo periodo del año pasado. Y según ha anunciado destinará 125 millones para reducir su plantilla en 750 personas, 230 en el Estado español, con carácter “voluntario”.




Cuando aumenta el IPC por encima de las subidas de pensiones y salarios, el coste de los productos básicos de la cesta de la compra crece aún más, la carestía del alquiler de las viviendas –y no digamos de su compra– está por las nubes... resultan hirientes socialmente los escandalosos beneficios de Repsol e Iberdrola, así como el de todas empresas que forman parte del IBEX 35. No solo debemos denunciar con firmeza esos escandalosos beneficios, sino que hay que controlar y poner límites al aumento de los precios; de igual modo, exigir que paguen más impuestos por esos beneficios para ser destinados a necesidades sociales.

## ATASCO EN LA VALORACIÓN DE LA DISCAPACIDAD EN NAVARRA CON MÁS DE UN AÑO DE ESPERA

La semana pasada la consejera Carmen Maeztu expuso en la comisión de Derechos Sociales que los tiempos de espera en cuanto a la tramitación de solicitudes en valoración de la discapacidad “no son positivos” y que las medidas aplicadas “no han reducido las listas”. En este sentido, reveló que, mientras que en 2019 el tiempo de espera era de cinco meses, en enero de 2026 fue de trece y medio; casi el triple que hace siete años.

En cuanto a los factores que han provocado esta situación, la consejera señaló la entrada en vigor, en mayo de 2023, de un Real Decreto que estableció cambios en el reconocimiento de la discapacidad y un retraso generalizado en los procesos. El aumento de las solicitudes, que han pasado de las 6.059 en 2019 a las 8.500 en los últimos años. Y los cambios de personal en los equipos de valoración por la jubilación de médicos y psicólogos “no están permitiendo estabilizar la plantilla” debido a que “de las tres plazas de medicina que han salido a oposición solo se va a cubrir una y a media jornada”.

En este contexto, desde el Movimiento Pensionista de Navarra consideran que “una vez más nos encontramos ante una pérdida de derechos de la ciudadanía, en una situación muy límite. Y exigimos soluciones: que con la máxima urgencia se reduzcan los plazos hasta los tres meses que fija la ley para el reconocimiento del grado de dependencia y de la concesión de la prestación y servicio correspondiente, además que tenga efectos desde el




día de solicitud del grado de dependencia, cada mes de retraso está teniendo consecuencias insoportables para las personas pendientes de la valoración y sus familias”.

## AL FIN, HABRÁ CONVENIO DE RESIDENCIAS DE NAVARRA

Hace tres semanas publicamos en este boletín que considerábamos interesante los avances que según fuentes sindicales se estaban dando en la negociación del convenio colectivo de residencias de mayores de Navarra. Ahora ya podemos decir que, tras años de movilizaciones, huelgas y reivindicaciones, 5.000 personas relacionadas con el sector van a disponer de su primer convenio sectorial en Navarra.

LAB, CCOO y UGT (ELA está pendiente de consultarlo con sus bases) firmaron la semana pasada con la patronal el preacuerdo que cubre a 4.500 trabajadoras y trabajadores en 70 residencias, y además se amplía a otros centros, como los de día, psiquiátricos y servicios de ayuda a domicilio. De esta forma, estas centrales estiman que estas condiciones laborales van a beneficiar notablemente a más de 5.000 personas, en su gran mayoría mujeres.




El Movimiento de Pensionistas de Navarra felicita a las trabajadoras de este sector por haber conseguido algo que es imprescindible para regular y mejorar en Navarra unas condiciones dignas de trabajo. Añaden que también lo hemos reivindicado en nuestras concentraciones: “Por un convenio digno, en las residencias” y “Hay que cuidar, a quien cuida”, porque los cuidados son una necesidad humana para sostener la vida y la sociedad

## FIESTA REIVINDICATIVA DEL MOVIMIENTO PENSIONISTA EN BARAKALDO

La semana pasada avanzamos que el 21 de mayo se celebrará una fiesta reivindicativa del movimiento pensionista en Barakaldo, que versará sobre la historia viva de mineros, trabajadores, trabajadoras y pensionistas de las comarcas de Ezkerraldea y Meatzaldea de Bizkaia.

Asimismo, informamos de que culminará con una comida-kantaldi en el Ibarrakaldu (debajo del Barrio de Santa Teresa), con un aforo para 150 personas, y a un precio de 15 euros. Y que para apuntarse a la fiesta y a la comida-kantaldi había que hacerlo por WhatsApp al número de José Ignacio 688 683 106, hasta el 13 de mayo.

La participación está abierta no solo a los compañeros y compañeras pensionistas de Ezkerraldea y Meatzaldea, sino del resto de Bizkaia y de Euskal Herria. Pero para garantizar bien la organización de la comida, volvemos a recordar que es preciso apuntarse antes del próximo miércoles, día 13. Será, sin duda, una jornada reivindicativa y festiva de interés, un encuentro agradable y animoso entre compañeros y compañeras del Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria. Una iniciativa más que pondrá de manifiesto que antes como personas trabajadoras en “activo” y ahora como pensionistas seguimos en lucha por unos derechos sociales que afectan al conjunto de nuestra vida personal y comunitaria.

